

Lezok osasun txartel elektronikoa eskuratzeko aukera eskainiko du

EKAINAREN 30ERA ARTE
LOPENeko ANBULATORIOAN,
UDALETXEAN ETA KZGUNEAN
ONA ESKURATU DAITEKE

LEZO. Ekainaren 30era arte ONA osasun txartel elektronikoa berria egiteko aukera izango dute herritarrek Lezon bertan. Astegunetan udaletxeko informazio bulegoan (8.00etatik 13.00etara) eta Lopeneko ambulatorioan (8.00etatik 15.00etara) eta KZgunean (9.00-13.00 eta 16.00-20.00) txartel berria eskatzeko tramiteak egiteko aukera dago.

Udaletik adierazi dutenez, ONAk

Osakidetzako eta herritar txartelek eskaintzen dituzten zerbitzuak euskarri bakar batean batzen ditu. Hau da, PFEZ (IRPF) likidazioak, zerga aitortpenen kontsultak, kiroldegian sartzea, udal liburutegietan maileguak, errolda egiaztagiria, gidabaimenaren puntuen kontsulta,... izapideak Internet bidez egin daitezke.

ONA doan jasotzeko zenbait baldintza bete behar dira: 16 urtetik gorakoa izatea, nortasun agiria eta Osakidetzako txartela eguneratua izatea eta sendagilea eskaera egiten den lurralde historikoan edukitzea. Edozein zalantza argitzeko telefonoa 943 340180 da. >A.M.